



Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bilerari buruzko datuak:

Eguna: 2013-06-20 Lekua: Santa Clara jauregia Ordua: 17:00 – 18:30

Bertaratuak:

Enclave de ciudadanas por Getxo: Charo De la Peña

Eskuz-Esku: Isabel Pérez

Gizatiar: Maite Egia, Carmen Peña

Roda: Clara Lorenzo

Udal Talde Sozialista: Agustín Ruiz, Inés Becares

Talde Popularra: Ana Basilio

Bildu: Arantza Gutiérrez

EAJ-PNV: Elena Coria

Lehendakaritza: Keltse Eiguren

Idazkaritza: Idoia Eizmendi

Bertaratu ez direnak:

Getxo Enpresa

ELA

Gai-zerrenda:

- Aurreko akta onartzea
- Jabekuntza-eskolen sarearen jardunaldiari buruzko balorazioa
- Ekainak 28, LGTB Harrotasunaren Eguna
- Jaien inguruko kanpaina
- Galde-eskeak

Aurreko akta onartzea

Aurreko bileraren akta onartu da.

Jabekuntza-eskolen sarearen jardunaldiari buruzko balorazioa

Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du Jabekuntza-eskolen Sarearen topaketa Getxon egin dela aurten, eta Getxo, Basauri, Ermua eta Ondarroako eskoletako ikasleek parte hartu dutela. Parte-hartzea ona izan da, 80 bat lagunek hartu dute parte, nahiz eta aurreko urteetan baino zertxobait gutxiago izan.

Sexu-aniztasuna izan dute mintzagai.

Gizatiarrek jardunaldiaren inguruko balorazio ona egin du.

Bilduk ere balorazio ona egin du, hitzaldia eta eztabaida ondo egon baitziren eta lunchean ere giro bikaina izan baitzen. Haien ustez, ondo egongo zen, baita ere, parte hartzeko edo ikusteko jardueraren bat egitea. Bilduko ordezkariak gogorarazi nahi izan du ikasle batek Emakumeen Etxearen inguruan hordagoa bota zuela, eta Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio ikaslea ez dela Getxoko eskolakoa.

Ekainak 28, Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen (LGTB) eguna

Berdintasun Zerbitzuak oroitzen hori medio antolatutako antzezlanaren inguruko informazioa eman du. "Ser o no ser visible" lana eskaini du La Traperera & Cristina Castillo konpainiak. Berdintasuneko zinegotziak adierazi du azken urteetan mahai-inguruak egin direla, eta oraingoan zerbait ludikoagoa antolatu nahi izan dutela.

Jardunaldi horren beraren gainean, Berdintasuneko zinegotziak adierazi du PSEK Institutuzio Aitorpenaren proposamena ekarri duela, testua adostu eta Bozeramaile Batzordeari onartu dezan eskatzeko; aurrez, ordea, aitorpena onartzea egokia den ala ez erabaki beharko da. Eskuz eskuk galdetu du beste alditan aitorpenik egin al den Harrotasunaren Eguna dela-eta, eta zinegotziak ezetz esan dio. Berdintasun Zerbitzuaren eremuan, Berdintasunetik iristen diren instituzio-aitorpenak bakarrik proposatzen dira; izan ere, herri askotan onartuta garrantzi handiagoa dute eta errazagoa da adostasunera iristea. Aitorpenak Martxoaren 8koa eta Azaroaren 25ekoa dira.

Eskuz eskuko ordezkariak adierazi du oso egokia iruditzen zaiola aitorpen-proposamena adostea, aurretik horrelakorik egin ez izan arren, noizbait izan behar baitu lehen aldia. Gainerako taldeak ere ados agertu dira.

Jarraian, Berdintasuneko zinegotziak PSEri eman dio hitza Institutuzio-arloko Aitorpenaren proposamena azal dezan. Berdintasuneko teknikariak kopia batzuk banatu ditu, testua duen posta azken orduan bidali denez, gehienez ez dute irakurri eta.

PSEK azaldu du Kontseiluaren egunak, Harrotasunaren Eguna eta Osoko Bilkuraren data gertu izanik, testu bat adostea proposatzen dutela Kontseiluaren beraren barruan eta Bozeramaile Batzordeari eskatu Institutuzio Aitorpen moduan onartzeko.

Mozioa aurkeztu dute aitorenaren proposamena Osoko Bilkurara eramateko, legezko epea betetzearren, baina, akordioa izanez gero, mozioa kenduko lukete.

Berdintasuneko zinegotziak adierazi du denak ados baldin badaude aitorenaren proposatzearekin, Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak proposatzen duena ere onar daitekeela.

PSEk aurkezturiko testua irakurtzea erabaki dute eta testua bera eztabaidatzea.

Irakurri ondoren, Bilduk esan du ados dagoela Bozeramaile Batzordeari aitorenaren proposatzearekin, baina ez zaiola testua egokia iruditzen, ezkontzeko eskubidea ona dela uste baitu baina ez nahikoa. Gainera, lehen paragrafoan homosexual hitza erabiltzeko modua diskriminatzailea dela uste du eta hiesa homosexualitatearekin lotzen du. Horrez gain, adierazi du testua euskaraz jasotzen dutenean, jorratuko dutela.

PSEk berriro dio testua eztabaidarako oinarria dela, ez dutela bere horretan defendatu nahi eta hobetzeko aukera badagoela.

Gizatiar Elkartearantz, paragrafo batzuk oso interesgarriak dira, eta talde gehienek onar ditzakete arazo gehiegirik gabe. Proposatu dute aitorenaren akordioaren zatiaren 1 eta 3 puntuetara laburtzea.

EAJren ustez, garrantzitsua da kokatzen duen testua izatea eta ez soilik akordioko puntuak sartzea.

Enclaverentzat testuak argia eta laburra izan behar du.

Azkenik, erabaki dute Berdintasun Zerbitzuak jasotzea aurrean aipaturiko proposamen guztiak, eta egun pare batera testua euskaraz eta gazteleraz denei bidaltzea.

Jaien inguruko kanpaina

Berdintasuneko zinegotziak adierazi du aurten proposatu dutela iazko kartelarekin jarraitzea, irudia eta leloa errepikatzean, herritarrak kanpainan gehiago sartuko baitira.

Kartelez gain, irudi bera duten eranskailuak inprimatuko dira, eta jai nagusietan (Paellak, Algorta, Areeta, Romo eta Portu Zaharra) karpa bat jarriko da ordu batzuetan eranskailuak banatzeko eta triptikoa indarkeria sexista prebenitzeko.

Bilduri kanpaina ez zaio argia iruditzen; erasoen aurkako era horietako kanpainak beldur apur bat ematen diotela adierazi du, aurkezteko moduaren arabera.

Berdintasuneko teknikariak liburuxkaren edukia irakurri du, eta neskei zuzendutako triptikoa dela adierazi du.

Gizatiarren ustez, matxista eta diskriminatzailea da. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio neskei zuzentzeak ez duela esan nahi diskriminatzailea izan behar duenik; izan ere, soilik neskei zuzentzen zaie haiek jasaten dituzten eraso-mota

batzuk prebenitzearren. Halaber, adierazi du horrela irudituz gero, kanpaina kentzeko garaian aurkitzen direla oraindik.

Bilduk testua irakurri ondoren adierazi du positiboa dela norbera defendatzearen ikuspegiarekin jorratzea.

EAJrentzat positiboa da liburuxkak eztabaida sortzeko aukera ematea.

Azkenik, proposatu da Berdintasuneko teknikariak aldaketaren bat egitea mutilak liburuxkan interpelatuak izan daitezten modu positiboan.¹

PSEk galdetu du leloren bat jartzetik badagoen txosnatako edalontzietan. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio gai hori Jai Batzordeek kudeatzen dutela eta ez Udalak.

Galde-eskeak

- Eskuz eskuk adierazi du Caixak ekintzaileentzat egindako iragarkia ez dela oso egokia, genero-rolak bultzatzeagatik. Elkartearen ustez, kexa agertu beharko litzateke. Era horretan, nola egin daitekeen galdetu du.

Berdintasuneko teknikariak adierazi du Emakundek nahiz Estatuko Emakumeen Institutuak publizitate-behatokiak dituztela, eta haietara zuzendu daitekeela.²

- PSEk galdetu du genero-ikuspegia HAPNan sartzen den ikusteko segimendurik egiten al den. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio lan-taldeak prestatzerakoan nozio batzuk kontuan izan zituztela gero aplikatu ahal izate aldera. Berez ez da segimendurik egiten, baina enpresari eskatu zaio ikuspegi hori sartzeko.

Jorratzeko gai gehiagorik ez izatean, bilera amaitutzat eman da.

Hurrengo bilera irailaren 12an izango da, 17:00etan.

¹ Aldaketak egin dira, baina ez da mutilenganako "keinurik" sartu, neskei zuzenduta egotean, mutilentzako esaldiren bat sartzeko modurik ez baita aurkitu. Gainera, kontuan izan behar da espazioa mugatua dela.

² Begira Behatokia. Harremanetarako: emakunde@ej-gv.es. Web orrialdea oraindik eguneratu gabe dago, behatokia arautzen duen dekretu berria duela gutxi onartu eta gero.

Emakumeen Irudiaren Behatokia (lehen Publizitate Sexistaren Behatokia), Estatuko Emakumeen Institutuaren mendekoa da. Harremanetarako: observatorioimagen@inmujer.es
<http://www.inmujer.gob.es/observatorios/observImg/home.htm>

